

228/2007 FORU AGINDUA, abenduaren 27koa, Hezkuntza kontseilariak emana, Hezkuntza kontseilariaren irailaren 23ko 156/2005 Foru Agindua aldatzen duena. Agindu horren bidez Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuan aldi baterako kontratuarekin irakasle lanpostuetan aritzeko izangaien zerrendak kudeatzeko arauak eman ziren.

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamenduko 42. artikulua xedatzen du aldi baterako langileak deialdi publikoen bidez hautatuko direla eta horietan berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publikitate irizpideei jarraituko zaiela. Ezartzen ere du aldi baterako langileak hautatzeko prozedurek bide eman beharko dutela arintasun handienaz kontratatzeko.

Bestaldetik, artikuluko 2. atalaren Administrazioak aldi baterako kontratatuak izateko izangaien zerrendak osatzeko sistemak aipatzen ditu. Sistema horien artean lehena lanposturik eskuratu gabe probak gainditzen dituztenen zerrendak dira, hots, kasuan kasuko lanposturako funtzionario edo lan kontratadun finko gisa sartzeko hautaprobak gainditu bai baina lanposturik eskuratu ez duten izangaiak.

Hezkuntza Departamentuak arau batzuk eman ditu irakasleen kontratazio administratiboaren berezitasunei buruz, Hezkuntza kontseilariak irailaren 24an eman 156/2005 Foru Agindua funtsean. Foru agindu horren bidez Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuan aldi baterako kontratuarekin irakasle lanpostuetan aritzeko izangaien zerrendak kudeatzeko arauak eman ziren. Bertan irakas-kidego bakoitzean kontratatuak izateko izangaien zerrenda bakar bat aurreikusten da. Horretan merezimendu lehiaketarako deialdi publiko baten bidez, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez edo prentsan iragarririko deialdien bidez sartzen ahal da. Kasu guztietan, aldi baterako kontratatuak izateko izangaien kasuan kasuko zerrenda osatzeko, izangaiak beren merezimenduak frogatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dituzte, foru aginduko II. eranskineko baremoarekin bat baloratuko direnak. Baremazio horren emaitzen arabera ezarriko da izangai bakoitza kasuan kasuko zerrendan sartzeko lehentasun hurrenkera.

Hala ere, kontratazioak ahalik eta arinen burutu ahal izateko, langileen aldi baterako kontratazioari buruzko orotariko arautegian xedaturikoarekin bat, bidezko da oraingoan Hezkuntza kontseilariak irailaren 23an eman 156/2005 Foru Agindua aldatzea. Izan ere, aldi baterako langileak hautatzeko lehen sistema oposizioaldia gainditurik ere kasuan kasuko kidegoan, espezialitatean eta hizkuntzan sartzeko hautapen prozesua gainditurik ez daukaten izangaiak kontratatzea izanen da. Izangai horien lehentasun hurrenkera sartzeko hautapen prozesuan lorturiko emaitzaren arabera izanen da.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 41. artikuluko 1. idatz-zatiko g) letran ematen zaizkidan ahalmenak erabiliz,

AGINDU DUT:

1. artikulua. Hezkuntza kontseilariak irailaren 23an eman 156/2005 Foru Aginduko lehen araua aldatzea.

Hezkuntza kontseilariak irailaren 23an eman 156/2005 Foru Aginduko lehen araua aldatu eta honelaxe geldituko da:

"Irakasleak aldi baterako kontratatzeko, Hezkuntza Departamentuak irakas-kidego hauetako espezialitate eta hizkuntza bakoitzaren arabera bereizirik zerrenden arabera burutuko du:

-Maisu-maistrak.

-Bigarren Hezkuntzako irakasleak.

-Lanbide Heziketako irakasle teknikoak.

-Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleak.

-Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleak.

-Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleak.

-Arte Plastiko eta Diseinuko Lantegiko maisu-maistrak".

2. artikulua. Hezkuntza kontseilariak irailaren 23an eman 156/2005 Foru Aginduko bigarren, hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren arauak aldatu eta bestelako zenbakiak ematea.

1. Hezkuntza kontseilariak irailaren 23an eman 156/2005 Foru Aginduko bigarren arauaren 1. atala aldatu eta honelaxe geldituko da:

"Bigarrena.-Izangaien zerrendak.

Hezkuntza Departamentuak aldi baterako kontratatuak izateko izangaien zerrendak osatzen ahalko ditu. Horietan lehentasun hurrenkera hau izanen da:

1. Oposizioaldiko proba gainditurik ere, hautapen prozedura gainditu ez duten izangaien zerrenda.

Hezkuntza Departamentuak kasuan kasuko kidegoan, espezialitatean eta hizkuntzan funtzionario gisa sartzeko eginiko azken deialdiko oposizioaldia gainditurik ere, lanposturik lortu ez duten izangaiek osatuko dituzte zerrenda hauek.

Izangai horiek oposizioaldiaren eta lehiaketaldiaren batura ponderatuaren bidez lorturiko puntuazioaren arabera antolatuko dira, kidego, espezialitate eta hizkuntza bakoitzari dagokion zerrendaren barruan.

Oposizioaldia gainditurik ere hautapen prozesua gainditzeko ez duten izangaien beste zerrenda bat onetsi arte egonen dira indarrean atal honen babesean osatzen diren zerrendak, kasuan kasuko kidegoan, espezialitatean eta hizkuntzan.

2. Aldi baterako kontratatuak izateko izangaien zerrendak, merezimenduen balorazioaren bidez osatuak.

2.A) Kidego, espezialitate eta hizkuntza bakoitzari dagokion zerrendetan, izangaien lehentasuna foru agindu honen II. eranskin gisa onesten den baremoa aplikatuz lorturiko puntuazioaren arabera zehaztuko da.

Merezimendu baremoko I. eta II. atalengatik izangaiei dagokien puntuazioa Giza Baliabideen Zerbitzuko langileek emanen dute. Baremoaren III. atalean aurkezturiko merezimenduen balorazioa Hezkuntza Departamentuko Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusiak edota Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen Zuzendaritza Nagusiak proposaturiko organoak edo organoek egingen dute.

2. Oraingo seigarren arauaren 2., 3., 4., 5. eta 6. atalak bigarren arauaren 2B), 2C), 2D), 2E) eta 2F) atalak bilakatuko dira, hurrenez hurren.

3. Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuan aldi baterako kontratuarekin irakasle lanpostuetan arituko diren izangaien zerrendak kudeatzeko arauak onesten dituen irailaren 23ko 156/2005 Foru Aginduko oraingo bigarren araua foru agindu horretako hirugarren araua bilakatuko da; hirugarren araua laugarren araua bilakatuko da; laugarren araua bosgarren araua bilakatuko da; eta bosgarren araua, seigarren araua.

3. artikulua. Hezkuntza kontseilariak irailaren 23an eman 156/2005 Foru Aginduko lehen xedapen gehigarria eta haren II. eranskinaren bidez onetsiriko merezimenduen baremoaren III. atala kentzea.

1. Hezkuntza kontseilariak irailaren 23an eman 156/2005 Foru Aginduko lehen xedapen gehigarria indargabetzen da.

2. Hezkuntza kontseilariak irailaren 23an eman 156/2005 Foru Aginduko II. eranskinaren bidez onetsiriko merezimenduen baremoaren III. atala ("Kidegoetan sartzeko hautapen prozeduretako ariketak gainditzea") kentzen da eta IV. atala ("Bestelako merezimenduak") III. atala bilkatuko da.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Xedapen iragankor bakarra.-Sartzeko hautapen prozesuetako ariketak gainditzeagatik lorturiko puntuazioak irautea.

Foru agindu honek indarra hartu baino lehen merezimenduen baremoko "Kidegoetan sartzeko hautapen prozeduretako ariketak gainditzea" izeneko III. atalagatik izangaiei banaturiko puntuazioak bere horretan iraunen du, kasuan kasuko kidegoan, espezialitatean eta hizkuntzan sartzeko beste hautapen prozesu baten gainean ebatzi arte.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Indargabetu egin dira foru agindu honetan xedatutakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Azken xedapen bakarra.-Indarra hartzea.

Foru agindu honek Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, 2007ko abenduaren 27an.-Hezkuntza kontseilaria, Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea.